



Euskara ikasteko dirulaguntzak emateko oinarri espezifikoak.

Azaroaren 24ko 10/1982 Legeak, Euskararen erabilera normalizatzeko oinarrizkoak, herritarren eskubide gisa aitortzen du euskara jakitea (5. artikulua), eta herri-aginteei ezartzen die eskubide hori ziurtatzeko neurriak hartu beharra (7. artikulua).

Apirilaren 7ko 2/2016 Legeak, Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoak, udalei izendatzen die, eskumen propio gisa, beren lurralde-eremuan euskararen ezagutza sustatzeko eta erabilera dinamizatzeko eskumena, horretarako zerbitzuak eta jarduerak zuzenean antolatuz, edo beste pertsona edo erakunde batzuek euskara sustatu eta dinamizatzeko aldera burutzen dituzten jardueren finantzaketan lagunduz (7. artikulua).

Bide beretik, azaroaren 19ko 179/2019 Dekretuak, Euskal Autonomia Erkidegoko toki-erakundeetan hizkuntza ofizialen erabilera instituzionala eta administratiboa normalizatzeari buruzkoak, zera dio: hizkuntza-arloko udal-eskumen propioa legez bereganatzeak berekin dakarrela hizkuntzaren erabilera dinamizatzeko eta hizkuntza horren ikaskuntza sustatzeko neurriak hartzeko konpromisoa (8.2 artikulua).

Anoetako Udala UEMA Udalerri Euskaldunen Mankomunitateko kidea da, eta helburu du neurri aurrerakoiak hartzea euskararen erabilera normalizatzeko eta herritarren hizkuntza-eskubideak errespetatzeko.

Anoetako Udalak oinarriak, irizpideak eta prozedura arautu nahi ditu, euskara ikasten ari diren herritarrei lehiaketa bidez dirulaguntzak emateko. Helburua da herritarrek euskaraz alfabetatzeko eta euskara ikasteko duten eskubidea bermatzea, eta, horretarako, ikaskuntza-gastuak finantzatzea.

Oinarri hauetan aurreikusi ez denari dagokionez, honako hauek aplikatuko dira: Anoetako Udalaren dirulaguntzak arautzeko Ordenantza orokorra, tokiko eta euskarari buruzko araudia, eta dirulaguntzen araudi orokorra.

Anoetako Udalak, beraz, erabaki du euskara ikasteko dirulaguntzak emateko oinarri hauek onartzea.

1. Xedea.

Dirulaguntza honen helburua da Anoetan errolatutako herritarrak bultzatzea euskara ikastaroetan parte hartzera; horretarako, Anoetako Udalak dirulaguntzak emango dizkie euskaltegi edo barnetegi batean euskara ikasten ari diren herritarrei.

Diruz lagunduko dira HABE Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntzerako



Erakundeak onartutako zentroetan egindako ikastaro presentzialen, autoikaskuntzako eta mistoen gastuak, oinarri hauetan zehaztutako baldintzen eta gehienezko kopuruaren arabera.

2. Onuradunak.

Baldintza hauek betetzen dituztenek eskatu ahal izango dute dirulaguntza:

- 16 urte edo gehiago izatea.
- Anoetan erroldatuta egotea.
- HABEk onetsitako zentro batean matrikulatuta egotea.
- Gutxienez % 80ko asistentzia-maila izatea.
- Dirulaguntzen onuradun izateko inolako debeku-kausarik ez izatea, Dirulaguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorraren 13. artikuluko 2. eta 3. paragrafoetan aipatzen direnak.
- Zerga-betebeharrak, Gizarte Segurantzarekikoak eta Anoetako Udalarekikoak egunean izatea.

Hurrengo ikasturteari begira, euskara ikasi nahi duten herritar guztiek aukera izan dezaten, egoera ekonomiko zaugarrian dauden herritarren kasuan, matrikula kopuruaren % 100 ordain dezake aurrez udalak, betiere egoera horri buruzko dokumentazioa jaso eta arloko teknikariak aurrez egindako balorazioan oinarrituz.

Nolanahi ere, dirulaguntzaren ordainketa aurreratua lortzeko, onuradunek Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 34.4 artikuluan eta horren Erregelamendua onartzen duen uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren 88. artikuluan xedatutakoa bete beharko dute.

3. Dirulaguntzen bateragarritasuna.

1. Oinarri hauen xede diren dirulaguntzak bateragarriak izango dira beste administrazio edo erakunde publiko edo pribatu batzuek emandakoekin, xedea berbera izanda ere.
2. Beste laguntza batzuk jasotzen badira, guztira jasotako zenbatekoa ezingo da izan diruz lagundutako jardueraren kostua baino handiagoa. Horrelakorik gertatuz gero, murriztu egingo da oinarri hauen kargura ematekoa zen dirulaguntzaren zenbatekoa, muga ez gaingidzeko.
3. Oinarri hauetan araututako dirulaguntzak ez dira estatu laguntza, Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuaren 107.1 artikuluan ezarritakoaren arabera, onuradunak ez baitira jarduera ekonomikoak egiten dituzten enpresak; ondorioz, laguntza horiek ez dira sartzen tratatu horren 108.3 artikuluan aurreikusitako jakinarazpen-prozeduran.

4. Eskaerak aurkezteko behar den dokumentazioa.

Dirulaguntzak eskatzeko, honako agiri hauek aurkeztu beharko dira:

- Dirulaguntza eskatzeko eskabidea, eredu normalizatuaren arabera behar bezala beteta. Emantzipatu gabeko adingabeek eta, oro har, administrazio publikoen aurrean jarduteko gaitasunik ez dutenek ordezkari legalaren datuak ere bete beharko dituzte eskabide-orrian.
- Onuradun izateko debeku-kausarik ez izatea egiaztatzeko erantzukizunpeko aitortpena, Dirulaguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorraren 13. artikuluko 2. eta 3. paragrafoetan aipatzen direnak (eskabide-orriaren bidez).
- Bestelako administrazioei eta erakunde publiko edo pribatuei egindako dirulaguntza eskaeren zein jadanik emandako dirulaguntzen gaineko aitortpena (eskabide-orriaren bidez).
- Euskaltegiaren ziurtagiria, ikasturteari buruzko informazio honekin:
 - A. Eskatzailea zein mailatan hasi zen eta zein maila egiaztatu duen.
 - B. Asistentzia zenbatekoa izan den.
 - C. Ikasleak zer zenbateko ordaindu duen ikastaroko matrikularengatik.
- Eskatzailearen kontu korrante zenbakiaren eta titulartasunaren banku-egiaztagiria. Emantzipatu gabeko adingabeek eta, oro har, administrazio publikoen aurrean jarduteko gaitasunik ez dutenek haien ordezkari legalaren banku-egiaztagiria aurkeztu dezakete.
- Matrikularen ordainagiria.
- Langabezian dauden C1 mailako euskara ikasleek, haien lan-egoera ziurtatuko duen langabetu-agiria.
- Egoera ekonomiko zaurgarrian dauden ikasleek, haien egoera edo familiaren egoera egiaztatuko duten agiriak.
- Udalak eska dezakeen beste edozein dokumentu.

Anoetako Udalak, administrazio publiko eskudunei, NISAE elkarreragingarritasun-nodoaren bidez, beharrezkoak diren egiaztapenak eta kontsultak egingo dizkie interesdunek administrazioaren esku jarri dituzten datuei buruz. Horregatik, elkarreragingarriak izan daitezkeen datuak eskatzeari utziko zaio, baldin eta interesduna datu horiek erabiltzearen aurka agertzen ez bada berariaz; kasu horretan, dagozkion datuak edo dokumentuak aurkeztu beharko ditu.

Administrazio publikoen arteko datu bitartekaritzarako oinarria urriaren 1eko 39/2015 Legearen 28. artikuluan zehazten da, non aitortzen baita herritarrek eskubidea dutela ez aurkezteko edozein administraziok egindako dokumentuak,

jatorrizko dokumentuak, ezarri beharrekoa den araudiak eskatzen ez dituen datuak edo dokumentuak, edo interesdunok aurretik edozein administraziori emandakoak.

Era berean, 40/2015 Legearen 155. artikulua adierazten duena gogora ekarriz, administrazioek elkarri lagundu behar diote datu-trukean, eta herritarrei buruzko datuak haien esku daudenak, eman behar dituzte.

Horren ildotik, Anoetako Udalak honako baldintza hauek egiaztatuko ditu beste administrazioetan, euskara ikasteko dirulaguntza eskuratu ahal izateko, NISAE datu-bitartekaritzarako plataformaren zerbitzuen bidez:

- Zerga betebeharrak egunean dituela.
- Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak egunean dituela.
- Eskatzailearen NAN edo agiri baliokidea.

Emantzipatu gabeko adingabeen eta, oro har, administrazio publikoen aurrean jarduteko gaitasunik ez dutenen kasuan ez dira datu hauek kontsultatuko: zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean izatea.

Ezin bada datuen artekaritza plataformen bidez edo hartarako gaitutako bestelako sistema elektronikoen bidez kontsulta egin, salbuespen moduan eskatu ahal izango zaio eskatzaileari dokumentazio hori aurkezteko.

Deialdira aurkezteko unean eskatzaileak ez du zorrik izango Anoetako Udalarekin, nahiz eta honi dagokionez, ez den egiaztagiririk aurkeztu behar. Bestalde, dirulaguntza ordaintzeko unean Udalarekin zorra izanez gero, ez da dirulaguntzarik emango.

Udalak berak egiaztatuko du Udal Erroldaren bidez eskatzailea anoetarra den.

5. Eskaera aurkezteko modua eta epea.

1. Bide hauetako edozein erabiliz aurkeztu ahalko da eskaera: erregistro elektronikoa, erregistro-gaietako laguntzarako bulegoak, posta-bulegoak, eta indarrean dauden lege-xedapenetan ezarritako beste edozein toki.
2. Deialdi bakoitzaren informazioa eta eskaera orri normalizatuak eskuragarri egongo dira udalaren egoitza elektronikoa.
3. Urteko deialdian zehaztuko da eskaerak aurkezteko epea.
4. Eskatzaileek ez dituzte aurkeztu beharko jadanik udalaren esku dauden dokumentuak, urriaren 1eko 39/2015 legeak, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearenak, 28. artikuluan aurreikusitakoaren arabera.

5. Dirulaguntza eskaera aurkezteaz bat, eskatzaileak aitortuko du betetzen dituela deialdian ezarritako baldintza guztiak, eta osotasunean onartzen dituela oinarri hauek. Halaber, adieraziko du eskabidean ageri diren datu pertsonalak bere baimenarekin hartu direla, eta baimentzen duela datu horiei trataera automatizatu ematea; era berean, onartuko du datu horiek sartzea behar bezala baimendutako udal-fitxategietan. Datu horiek erabiltzeko baimena emango du, baldin eta erabilera hori udal kudeaketara mugatzen bada.

6. Akatsak zuzentzea eta dokumentazio osagarria aurkeztea.

1. Eskaeran edo horrekin batera doan dokumentazioan ez badira ageri identifikazio datuak, akatsen bat badu edo zerbait falta bada, eskatzaileari hamar eguneko epea emango zaio akats horiek zuzentzeko, urriaren 1eko 39/2015 legearen 68. artikuluan ezarritakoari jarraikiz. Epe horretan akatsak zuzendu ezean, uste izango da eskatzaileak uko egin diola, eta artxibatu egingo da, beste tramiterik egin gabe.

2. Udalak beharrezko irizten dion informazio osagarria eskatu ahal izango die eskatzaileei eskabidean adierazitakoa egia dela ziurtatzeko.

7. Dirulaguntzak emateko prozedura.

1. Lehiaketa bidez emango dira dirulaguntzak.

2. Ofizios hasiko da laguntzak emateko prozedura, deialdi publiko baten bidez. Deialdia organo eskudunak onartuko du, eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta Dirulaguntzen Datu Base Nazionalean argitaratuko da.

3. Abenduaren 9ko 19/2013 Legearen 8. artikulua betez, emandako dirulaguntzak argitaratu egin beharko dira Anoetako Udalaren Gardentasun Atarian eta Dirulaguntzen Datu Base Nazionalean, zenbatekoa, helburua edo xedea eta onuradunak adierazita.

4. Urriaren 1eko 39/2015 Legearen 45.1.b) artikuluan ezarritakoaren arabera, deialdia iragarki-taula digitalean eta udalaren webgunean argitaratuko da. Nolanahi ere, udalak oinarri horien eta gainerako argitalpenen berri emango du egokitzat jotzen dituen bitartekoak erabiliz.

8. Dirulaguntzen zenbatekoa.

1. Honako irizpide hauek erabiliko dira dirulaguntzen zenbatekoa kalkulatzeko, Hizkuntzen Europako Erreferentzia Markoari erreparatuz:

- A1, A2, B1, B2 mailak: matrikularen %100eko dirulaguntza, 900 euroko gehienezko mugarekin.
- C1 maila: matrikularen %80ko dirulaguntza, 500 euroko gehienezko mugarekin.

Salbuespen hauek ezarriko dira, betiere gehienezko muga errespetatuz:

- Langabezian dauden C1 mailako euskara ikasleek matrikularen %100eko dirulaguntza jaso ahal izango dute, baldin eta langabezia egoera egiaztatzen badute.
 - Egoera ekonomiko zaurgarrian dauden C1 mailako euskara ikasleek matrikularen %100eko dirulaguntza jaso ahal izango dute, baldin eta ikasle horiek edo haien familiek egoera egiaztatzen badute.
- C2 maila: ez da diruz lagunduko C2 mailako ikastarorik.
2. Dirulaguntzen zenbatekoa ezingo da inoiz izan ikastaroaren edo jardueraren kostua baino handiagoa.
 3. Ez da diruz lagunduko barnetegiko egonaldiari dagokion gasturik.
 4. Ikasleak ez du dirulaguntzarik jasoko ez badu ikasturtea behar bezala amaitu, %80ko gutxienezko asistentziarekin.

Hurrengo ikasturteko matrikula-kopuruaren %100 Udalak aurrez ordaintzea eskatu duten eta egoera ekonomiko zaurgarrian dauden herritarren kasuan, ikasturtea ez badute behar bezala amaitzen, asistentzia-mailaren barruan, aurreratutako kopuru hori itzuli egin beharko diote Udalari, albuespenak albuespen (ikus 13. artikulua).

5. Irizpide hauek guztiak urteko aurrekontuetan zehaztutako kopuruaren menpe egongo dira. Kopuru horiek ez badira nahikoa jasotako eskaera guztiei erantzuteko, dirulaguntzak proportzioan gutxituko dira, lehentasuna emanaz A1, A2, B1, B2 mailako ikasleei, egoera ekonomiko zaurgarrian daudenei eta langabetuei.

9. Dirulaguntzaren zenbatekoa ezohikotasunez handitzea.

1. Dirulaguntza deialdian, albuespen gisa, gehienezko zenbatekoaz gain, ezarri ahal izango da zenbateko gehigarri bat ere, eta ez da dirulaguntzak emateko deialdi berririk egin beharko.

Zenbateko hori finkatzeko eta erabiltzeko, ezinbestekoa da aurreikustea deialdia egiten den unean erabilgarri ez dauden kredituetatik datozen zenbateko gehigarriak erabilgarri egotea emakida-ebazpena eman aurretik, uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren bidez onartutako azaroaren 17ko 38/2003 Legearen Erregelamenduaren 58.2 artikuluan zehaztutako egoeretako baten ondorioz kredituak handitzearen mende dagoelako.

Dirulaguntza ematen duen organoak laguntza emateko ebazpena eman baino lehen argitaratu behar ditu kreditu erabilgarrien aitortzea eta behin betiko banaketa, deialdiaren bitarteko berberetan. Deialdi horrek ez dakar berekin eskabide berriak

aurkezteko epea irekitzea edo ebazpena emateko epe berria hastea.

2. Deialdi irekia: deialdi irekiak, oinarri hauetan ezarritako betekizun orokorrez gain, elkarren segidako ebazpenen kopurua ezarri beharko du, eta horietako bakoitzerako zehaztu beharko ditu uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren bidez onartutako azaroaren 17ko 38/2003 Legearen Erregelamenduaren 59. artikulua eskatzen dituen alderdiak.

Aldi baten amaieran dirulaguntzak eman badira eta eman beharreko gehieneko zenbatekoa ez bada agortu, aplikatu ez den zenbatekoa ondorengo emakida-ebazpenetara aldatu ahal izango da. Horretarako, eta uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren bidez onartutako azaroaren 17ko 38/2003 Legearen Erregelamenduaren 59.5 artikuluan adierazitakoaren arabera, erabili gabeko funtsak esleitzeko jarraitu beharreko irizpidea da soberakina zati berdinetan banatzea gainerako aldien artean.

10. Prozedura bideratzeko, instrukzioa egiteko eta ebazteko organo eskudunak.

1. Dirulaguntza emateko prozeduraren instrukzioa egitea Euskara Zerbitzuari dagokio.
2. Euskara Zerbitzuak aztertuko ditu eskabideak, eta haiek baloratzeko txostena eta ebazpen-proposamena egingo ditu. Proposamen horretan zehaztuko du egindako ebaluazioaren emaitza, eta organo eskudunari helaraziko dio, onar dezan. Halaber, Euskara Zerbitzuak eskumena izango du egokiak ikusten dituen salbuespenezko kasu bereziak aztertzeko eta kasu berezi bakoitzari egokitutako proposamena egiteko.
3. Alkateak izango du oinarri hauetan jasotako dirulaguntzak ematea ebazteko eskumena.
4. Hiru hilabetekoa izango da dagokion ebazpena emateko, argitaratzeko edo jakinarazteko gehieneko epea. Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen denetik zenbatuko da epe hori, salbu eta deialdiak ondorioak atzeratzen baditu.
5. Epe hori igaro eta ez bada ebazpena jakinarazi edo argitaratu, interesdunek ezetsizat jo ahal izango dute eskabidea administrazio-isiltasunez.

11. Onuradunen betebeharrak.

1. Honako betebeharrak orokor hauek dituzte dirulaguntzen onuradunek:
 - Dirulaguntzaren xede den jarduera bete-betean burutzea.
 - Dirulaguntza zertarako eman den, horretarako erabiltzea.

- Oinarri hauetan zehaztutako eran aurkeztea justifikazioak.
- Dirulaguntza ematen duen organoak egin beharreko egiaztapen-jarduketei men egitea, bai eta kontrol-organo eskudunek egin ditzaketen finantza-egiaztapen eta -kontrolko beste edozein jarduketari ere, eta aurreko eskatzen zaion informazio guztia ematea.
- Dirulaguntza ematen duen organoari jakinaraztea, diruz lagundutako jarduera finantzatzeko beste dirulaguntza, diru-sarrera edo baliabide lortuz gero. Jakinarazpen hori laguntza jasotzearen berri izan orduko egin beharko da, eta, nolana ere, jasotako funtsei emandako aplikazioa justifikatu aurretik.

2. Deialdiak ezar ditzake beste betebeharrak espezifiko batzuk.

12. Dirulaguntzen ordainketa.

Dirulaguntzak ematea Alkatetzaren Dekretu bidez ebatzi ondoren, hilabeteko epean egingo da dirulaguntzaren ordainketa, dirulaguntza ematen den egunetik zenbatzen hasita. Ordainketa behin bakarrik egingo da, interesdunak emandako kontu korrontera banku-transferentzia eginez. Kontu korronte hori hirugarrenen fitxan jasoko da.

13. Dirulaguntzak itzultzea

1. Azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 36. eta 37. artikuluetan aurreikusitako kasuetan, bidezkoa izango da jasotako zenbatekoak itzultzea eta dirulaguntza ordaintzen denetik itzultzea bidezkoa dela erabakitzen den egunera arteko berandutze-interesa eskatzea.

2. Azaroaren 17ko 38/2003 Legearen II. tituluko II. kapituluan eta uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren bidez onartutako Erregelamenduaren III. tituluko II. kapituluan ezarritako xedapenek arautuko dute dirulaguntzak itzultzeko prozedura.

3. Azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 17.3.n) artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik, honako irizpide hauek zehazten dira dirulaguntza ematean ezarritako baldintzak ez betetzeak mailakatzeko, kasu bakoitzean itzuli beharreko ehunekoekin:

- Baldintzak faltsutuz edo ezkutatuz lortzea: % 100.
- Bertaratzeko edo ordaintzeko betebeharra ez betetzea: % 100.

Nolana ere, hurrengo ikasturteko matrikula-kopurua Udalak aurrez ordaintzea eskatu duten eta egoera ekonomiko zaurgarrian dauden herritarrak dirua itzultzeaz salbuetsita egongo dira ondoko kasuetan:

- a. Ikasleren batek, lanean hasi eta, ordutegia dela-eta, ez badauka euskaltegia joaterik, baldin eta lanean hasi den enpresaren ziurtagiriaren bidez egiaztatzen



badu (kontratatzailearen sinadura edo enpresaren zigilua beharrezkoa da).

- b. Gaixotasun luzea izan badu, baldin eta mediku-ziurtagiri ofizial bidez egiaztatzen badu eskoletara joateko ezintasun larria duela.
- c. Haurdunaldia, baldin eta medikuaren txosten bidez egiaztatzen badu atsedeen osoa hartu behar duela.
- d. Amatasuna, baldin eta euskaltegiko klaseetara egokitzerik ez badauka eta haurtxoaren zaintza egokia egiteko laguntzarik ez badauka.

14. Araudi aplikagarria

Oinarri hauen xede diren dirulaguntzak arautuko dituzte, oinarri hauetan xedatutakoaz gain, Anoetako Udaleko Dirulaguntzen Ordenantza Orokorrak, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legeak, uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren bidez onartutako garapen-erregelamenduak, eta dirulaguntzen arloan aplikatu beharreko gainerako arauak.